

# Funtsesko baliabideak

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak behar ditugu:

- **BALIABIDE FISIKOAK:** Lokal bat alokatuko dugu bertan produktuaren muntaketa gauzatzeko. Lokalean, bi mahai egongo dira bi ordenagailuekin eta beste 6 mahai muntaia prestatzeko. Tresneria beharrezkoarekin, bertan produktua muntatzeko. Lokala, 100 metro karratukoa da eta hilabetean 450€ ordainduko dugu. Muntaia prestatzeko beharrezko tresneria erosiko dugu, hau da, 8-10 mahai, bi ordenagailu eta produktuaren zatiak elkartzeko beharrezko tresneria.



Imagen Trastero de local en calle Zamalbide Auzoa, 1, Zamalbide, Renteria / Errenteria  
**Alquiler de Local en calle Zamalbide Auzoa, 1**  
Zamalbide, Renteria / Errenteria [Ver mapa](#)  
450 €/mes  
Fianza de 2 meses  
100 m<sup>2</sup> | 4,50 eur/m<sup>2</sup>

- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:** Web orri bat dugu produktua saltzeko eta bertan honi buruzko informazioa eskuratzeko. Bezeroak erraz erakartzeko ezagutza, jendea produktua erosteko konbentzitzea, produktua erakargarria bilakatzeko ezagutza. Flexiphonen muntaia egiteko ezagutza profesioanala eta trebetasuna behar dugu.
- Flexiphone produktu berri bat denez eta ideia lapurtua ez izateko merkaturatzeko patenteak egin behar dira, produktua erregistratu egin beharko da.



- **GIZA BALIABIDEAK:** 5 langile kontratatuko ditugu gurekin batera lan egiteko. Horietatik bi, produktua pertsonalizatu ordenagailuan egiteaz arduratuko dira eta besteak muntaia prestatzeaz, hau da, produktuaren zatiak erosi ondoren, zatiak elkartzea eta produktua osatzea. Beste hiru langileetatik, bakoitzak atal batez arduratuko da beti, hau da, kate bat



bezalakoa izango da. Langile batzuk oinarria eta kable flexiblea elkartuko ditu, beste batzuk kargadorea kablearen barruan sartzeaz arduratuko da eta beste batzuk elektro-gailuak heltzen duen aparatua egituran sartzeaz arduratuko dira. Guk, enpresako jabeak, produktuaren marketinaz arduratuko gara. Flexiphone kaleratzeaz eta jendearengana eramateaz arduratuko gara. Gure lana publizitatea izango da. Hitzaldiak egin ditzazkegu mugikorren erabilera ona egiteaz eta gero produktua saldu.

- **FINANTZA BALIABIDEAK:** Dirua guk jarriko dugu, sozietate anonimo bat egingo dugunez ekarpen minimoa 3000€-koa da. Orduan 5 garenez bakoitza 1000€ jarriko ditugu bakoitzak eta 5000€ izango ditugu enpresarentzat. Hasierako kapitala, enpresarentzako materialak erosteko eta alokairuaren errenta ordanintzeko erabiliko ditugu.